

# BERRIZTARRA

2011ko MAIATZA



## Hondakinak batzen

**B**errizko Udalak etxean sortzen ditugun hondakinak birziklatzeko ahalegin berezia egin du azken urteetan. Eta aurrera begira ere birziklatzean aurrerapasaŕuak emateko asmoa dauka. Besteak beste, hondakin organikoen kudeaketarako era berria jarriko du abian.



# udal

erabakiak

## ● Ohiko bilkura: urtarrilak 12 enero

### Onartutakoa

- Zerbitzu publiko eta jarduera administratibo eskaintzen tasa arautzaileen ordenantzan aldaketa, R epigrafrean, ethez etxeko janari zerbitzuari dagokiona. Aho batez.

- Durangaldeko erakundeen arteko koordinaziorako I. Protokoloa: indarkeria sexistaren biktimaren emakumeei harrera hobea emateko. Alde 5 (EAJ), abstentzioak 6 (EA, PSE, Karmen Amezua, Gorka Camara, Aitor Zumelabe eta Aizpea Macarro).

## ● Ohiko bilkura: otsailak 9 febrero

\* Falta: Pili Sanz (EAJ) eta Aizpea Macarro.

**Onartutakoa:** Aurreko bilkuretako aktak onartu eta alkatetza dekretuen berri emateko.

## ● Ez-ohiko bilkura: martxoak 9 marzo

### Onartutakoa

- Berrizko San Pedro Legañoko esku-hartzea, balioa ezagutarazteko eta gune hori mantentzeko proiektua. Aho batez.

## ● Ohiko bilkura: apirilak 13 abril

Falta: Aizpea Macarro eta Puri Perez (EA) beranduago agertu da.

### Onartutakoa

- Kreditu gehigarrietarako espedientea. Alde 8 eta abstentzioa 1 (PSE). EAKo ordezkaria ez da bozketan izan.

- Etxez etxeko laguntza arautzeko udal araudiaren aldaketa. Alde 8 eta abstentzioa 1 (PSE). EAKo ordezkaria ez da bozketan izan.

- Gizarte zerbitzuek emandako banakako prestazio ekonomikoen udal araudia indargabetu. Alde 9 eta abstentzioa 1 (PSE).

## ● Ez ohiko bilkura: apirilak 26 abril

\* Falta: Koldo Mendez (PSE).

### Onartutakoa

- 2011ko Toki eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako mahaien zozketa.

## ● Ohiko bilkura: maiatzak 11 mayo

\* Falta: Koldo Mendez (PSE).

### Onartutakoa

- Aho batez. Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko Berrizko udal ordenantza.

- Aho batez. "Eskubide urraketa" mozioa, Karmen Amezua, Gorka Camara, Aitor Zumelaga eta Aizpea Macarro zinegotziek aurkeztuta.

## EUSKERA

### Tendrá prioridad en la actividad administrativo-municipal

**Udalbatzak aho batez 2005.** urtean onartu zen euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko Berrizko Udal Ordenantzan aldaketak egitea onartu du. Udal administrazioak barne-funtzionamenduan, herritarrekiko eta beste instituzio edo erakundeekiko harremanetan eta gizarte-bizitzan euskarari lehenasuna emango dio. Ordenantzak garatu eta euskararen erabilera planaren jarraitpenerako beharrezko diren neurriak proposatu, aztertu eta martxan ipintzeko, udalaren organigraman euskara batzordearen egitura berreskuratuko da.

Hainbat gizarte esparrutan euskararen normalizazioan lan egiten duten pertsonak osatuko dute eta hiru hilabetero elkartuta, euskararen normalizazioan ematen diren pausuen jarraipena egitea eta, beharko balitz, neurri zuzentzaileak proposatu eta adostea izango da bere egitekoa.



## FIRMA DE PROTOCOLO

Berriz junto a los ayuntamientos de Abadiño, Durango y Elorrio, representantes de la Mancomunidad, Osakidetza y Ertzaintza ha aprobado y firmado el I. Protocolo de coordinación interinstitucional del Duranguesado para la mejora de la atención a mujeres víctimas de violencia sexista.



## LEGAÑOKO ERMITA

### Valor histórico-arqueológico acreditado

historia ulertzeko datuak argitu zituen. Udalbatzak, orain, azterketa arkeologikoan sakondu eta gerora, inguruari behar duen garrantzia emango dion proiektua onartu du.

Sei zundaketa diferente egin dira ermita barruan eta inguruetan. Aurkitutakoek erakusten dute kanposantu modura erabili izan zela historikoki oso difrentek diren sasoietan. XI, XVI eta XIX mendeko hilobi-aztarnak aurkitu dira ermita barruan eta kanpoan. Eliza zein kanposantutik kanpo aurkitu diren era horretako lehen aztarnak dira Bizkaian. Antza denez, izurrite batek bultzatuta, hilobiratzeak elizatik kanpo egiten hasi ziren orduko berriztarrak.

San Pedro Legañoeko gunea berreskuratu eta balioan ipintzeko proiektua urte bikoa izango litzateke. Ikerketa arkeologikoan sakondu eta guztia ezagutzera emateko, ingurua txukuntzea aurreikusten da proiektuan, besteak beste, ondarearen erakustoki eta informazio gunek bat atonduz.



*La puesta en marcha del itinerario ecológico en las inmediaciones del río Oka, obligó a efectuar una serie de sondeos arqueológicos en 2010. Las distintas evidencias documentadas durante la campaña de sondeos arqueológicos hacen del enclave un emplazamiento de interés para continuar profundizando en su estudio. Proyecto que se aprobó por unanimidad en pleno.*

*El proyecto de recuperación, y su posterior puesta en valor del enclave de San Pedro de Legaño, se realizará en dos años consecutivos. Se prevé profundizar en el estudio arqueológico y acondicionar el entorno para dar a conocer el valor de este elemento patrimonial, el primero de sus características encontrado en Bizkaia.*

## AGUR LEGEALDIA AMAITU DA

**Argazkian azken lau urteetan** Berrizko Udaleko jarduna zuzendu duten zinegotziak. Maiatzaren 11n egin zuten legealdiko azken ohiko udal bilkura.

En la foto concejales que en estos últimos cuatro años han dirigido el día a día del Ayuntamiento de Berriz. El 11 de mayo celebraron su último pleno ordinario.



# BERRIZKO LEKU IZENAK ZEHAZITEN

**Udala herriko toponimia batzeko lanean dabil. Orain dela bi urte ekin zion proiektuari, baina azken urtebetean hasi da emaitzak jasotzen. Euskaltzaindiaren tutoretzarekin eta Udalak emandako bekarekin, Jon Ander Ramos Martinez arrasatearra eta historian lizentziaduna ibili da landa-lana egiten, jendeari galdezka, artxiboetan kontsultatzen eta gaur egun nola erabiltzen diren jasotzen. Asmoa Berrizko leku-izenak zehaztea da. Auzo, mendi, erreka, leku eta baserrien izenak bildu dira.**

Herriko mapa eta aldundiaren ortoargazki handien gainean bildutako izen guztiak ipinita dauzkala izaten da astelehenero udalletxean Jon Ander Ramos. Azaroan Kultur Etxean egin zen erakusketan bildutako datuez aparte, orain ere banaka herritar batzuk hurreratzen zaizkio bere jabegokoak diren lurren gaineko eskriturak hartu eta mapa handietan lekuen izenak identifikatzen. Lan hau oso garrantzitsua dela azpimarratzen du.

Udalak herriko toponimiari buruzko ikerketa argitaratzeko asmoa dauka edozeinen kontsultarako. Hori, baina, 2012 urtean izango da. Oraindik, eta udara bitartean, baserriz baserri azken bisitak egitea falta da, azken datu-bilketa egiteko.

Lan horri lotuta, bestetik, Udalak Berrizko eraikin eta etxe berriei azken urteetan ipini zaizkien izenak ere jasotzeko ahalegina egin du. Egiten dabilen toponimia lanak gainera, izen berriak aukeratzen laguntzeko oinarria jarriko du eta udalak horretarako aholkularitza eskainiko du euskara zerbitzutik.



## La importancia del nombre

El Ayuntamiento de Berriz está elaborando el mapa toponímico del municipio. Este proyecto lo lleva a cabo Jon Ander Ramos, bajo la tutela de Euskaltzaindia y en colaboración con los técnicos municipales. El objetivo es concretar, de manera oficial, los topónimos de Berriz. Se está recabando información sobre barrios, montes, riachuelos, lugares y caseríos principalmente. Para ello es fundamental la información que de sus propiedades están aportando las y los berriztarras. A su vez, este estudio ayudará al Ayuntamiento en el asesoramiento que ofrece para designar un nombre a nuevas construcciones.

## 2008an Berrizko Udalak abian ipinitako beka deialdiari erantzunez, herriko toponimia aztertzen dihardu.

### Zelangoa izan da orain arteko lana?

Niretzat oso aberasgarria. Historian lizentziaduna naiz eta lehenengoz egiten dut horrelakorik. Euskaltzaindiaren babes osoa, udalaren baliabideak eskura eta berriztarren laguntza handia izan dut.

### Arazorik?

Adineko jende gutxi. Informazioa eman digutenek borondate itzela erakutsi dute, baina pena da lan horri arinago ez ebatu izana...Gero, jendeari asko kostatzen zaio bere jabegoari dagozkion idazkiak, eskriturak esaterako, era-

kustea. Eta horrelakoak informazio iturri handia dira.

### Zertarako balioko du lan horrek?

Herriko leku-izenak normalizatzeko. Udalak, gero, senalizazio guztia zehazteko eta teknologia berriekin geolokalizazio zehatzagoak ere ahalbidetzeko.

### Gauza kuriosoak, anekdotak, izan dira?

Auzoekin dagoen nahasteak harritu nau. Etxe multzoak auzotzat hartzen dituzte batzuek. Eta Berrizen sei auzo edo kofradia dago: Andikoa, Sarria, Eitua, Sallobente, Okango eta Murgoitio. Gero, Sarriako eskoletarako bidean, errepide ondoan, zulo batean, ezkutu-ezkutuan oso jende gutxi zekien iturria aurkitu dugu: "Kakiturri". Antza denez, eskolara bidean txizagurea eukindakoan hara baztarrera joaten ziren umeak.



**JON ANDER RAMOS MARTINEZ**

# ZABORRA KUDEATZEKO SISTEMA BERRIAK

**Konpostaje ikastaroa eta olio bilketarako sistema berria, besteak beste, Berrizko Udalak aurrera begira hondakinen kudeaketan egingo duen ahalegiaren lehen pausuak dira. Ikasturte berriari begira, atez ateko bilketa organikoa egiteko esperientzia pilotua abiaraziko da.**



Berrizko Udalak 'Berriz Maite Dugulako' ekimenaren laguntzarekin, eta herriko hondakin eta zaborrari buruzko hausnarketa prozesu baten barruan, konpostaje ikastaro bi antolatu ditu zemendian eta otsailean. Guztira, ikastaro bietan 60 bat berriztarrek eman du izena eta hondakin organikoa zelan berziklatu daitekeen ikusi eta ikasi dute.

## ZILO GEHIAGO

Ekimenak piztu duen interesari eutsiz, Azterlan enpresarekin hitzarmena sinatu du orain eta konpostatzeko planta berria eta handiagoa jarriko da udaletxeko lorategian. Lau zilo izango ditu konpostatzeko gune berriak. Azterlanek, bestetik, udalari aholkularitza teknikoa emango dio prozesu guztian zehar. Konpostajerako zilo zaharrak, berriz, institutuko ikasleek erabili ahal

izango dute aurrerantzean, birziklitzeko sistema gertutik ezagutzeko.

Udalaren asmoa, ikasturte berrian, atez ateko bilketa probatzen hastea da eta batuko den zabor organikoa konposta egiteko erabiltzea. Horretarako, uda osterako kanpaina berezia diseinatzeko asmoa dago. Borondatez izena ematen duten berriztarrekin zabor bilketarako sistema berria probatuko da. Esperientzia pilotuan parte hartzen dutenek, gainera, hobari batzuk izango dituzte.

## LANGILE BAT HARTUKO DA

Probako esperientzia abian ipintzeko, hala ere, pertsona bat kontratatu beharko da. Gainera, zabor bilketarako erabiliko den ibilgailu elektrikoa erosteko asmoa ere badago. Egun erdiko lanordua aurreikusten



da horretarako. Eta ibilgailuaren kasuan, beste zeregin batzuetarako ere erabilgarri izango litzateke.

Hala ere, asmo horiek guztiak finantziazioak baldintzatuta daude. Lehenengo urteko jardunerako, eta batez ere sistema abian ipini ahal izateko, 100.000 euroko inbertsioa aurreikusten dute udaletik. Aurrekontu horri aurre egin ahal izateko, udal aurrekontuen soberakinak eta udalaz haragoko erakundeen programa diferentetako diru-laguntzak erabiliko dira.

## Hamarkada bateko zabor bilketa

Hona hemen Berrizen joan den hamarkadan egin den zabor bilketaren grafikoa. Urteetan materia diferenteen zabor bilketa enpresa ezberdinek egin dute. Gaur egun honako enpresa hauen bitartez egiten da zabor bilketa:

**Organikoa: Inbisa; Kartoia eta papera, tamaina handikoak zein arropa eta oinetakoak: Rezikleta; Beira: Ecodividrio; Ontziak: Garbiker; Olioa: Eko3R.**

	Organikoa	Papera Kartoia	Tamaina handikoak	Arropa eta oinetakoak	Beira	Ontziak	Olioa
2010	1.427.850	240.930	24.702	12.108	110.958	83.657	777
2009	1.459.300	225.550	24.995	15.470	119.009	88.592	866
2008	1.662.727	245.550	38.180	20.582	127.329	73.271	998
2007	1.559.970	227.850	///	///	88.976	78.806	776
2006	1.605.700	231.356	///	///	129.731	69.975	660
2005	1.566.460	216.833	///	///	51.449	65.488	755
2004	1.458.860	214.060	///	///	125.558	60.139	700
2003	1.520.480	188.515	///	///	119.557	61.700	606
2002	1.592.710	176.730	///	///	97.620	49.846	902
2001	1.613.940	174.876	///	///	86.568	55.457	///

**Hacia una nueva gestión de residuos.** El Ayuntamiento de Berriz ha comenzado a probar nuevos sistemas de gestión de residuos. En los meses de noviembre y febrero se organizaron talleres de compostaje, en el que participaron alrededor de 60 personas. Viendo el interés de los talleres, el ayuntamiento ha decidido instalar una planta de compostaje en el jardín del consistorio y reutilizar el que se ha venido usando para los talleres en el instituto. Para llevar a cabo la nueva planta se ha firmado un convenio de colaboración con Azterlan, quién ofrecerá asesoramiento técnico durante un año.

Junto a la planta de compostaje también se llevará a cabo una campaña piloto para la recogida de residuos orgánicos puerta a puerta, en el que podrán participar todas aquellas personas que lo deseen. Para esta experiencia piloto se contratará a una persona y también se comprará un vehículo eléctrico.

Por otro lado, el nuevo sistema de recogida de aceite doméstico ha dado resultados positivos los primeros dos meses. Se ha quintuplicado la recogida respecto al sistema antiguo. En marzo y abril del año 2010 se recogieron 130 litros, frente a los 675 litros recogidos en 2011.



**Boskoiztu egin da olio bilketa.** Martxotik etxean erabiltako olio biltzeko sistema berria ipini du Udalak. Abantaila nagusia urteko egun guztietan eta 24 orduetan erabili daitekeela da. Izan ere, udalaxe ondoan, Geltoki kalean eta autopista azpian ipini diren makinak erabiltzerazak dira. Udalak banatutako olio potea bete, makinan utzi eta honek berria bueltatzen du. Olio bilketa boskoiztu egin da lehenengo hilabete bietan, orain arte erabili izan den sistema-rekin alderatuz: iaz martxoan 70 litro batu ziren eta aurten 300. Apirilean ere antzeko datuak jaso dira: iaz 60 litro eta aurten 350.

## RECOGIDA SELECTIVA

### VOLUMINOSOS

- Los muebles, electrodomésticos, libros, ropa, juguetes, etc. que desees retirar, se recogerán PREVIA LLAMADA AL TELEFONO 902.540.154 de Rezikleta S. Coop.
- Los OBJETOS REUTILIZABLES, QUE AUN ESTAN EN USO, te los recogemos desde el domicilio, concretando contigo previamente el día y la hora.
- Los OBJETOS DETERIORADOS O ROTOS son retirados desde la calle, también avisando antes por teléfono. Debes depositarlos al lado del contenedor de basura LOS PRIMEROS Y TERCEROS JUEVES DE CADA MES, antes de las 8 de la mañana.

### ORGÁNICO

LA RECOGIDA EN EL CASCO URBANO SE REALIZA DE LUNES A SABADO

- Que los establecimientos públicos que generan materia orgánica, restaurantes, bares; depositen la basura especialmente cerrada en los contenedores
- Llenar todos los contenedores por igual para que no queden mal cerrados y nunca depositarlos en el suelo

### PAPEL-CARTÓN

- DEPOSITA: Periódicos, revistas y cajas de cartón
- NO DEPOSITES: Bolsas de plástico y corchos de embalajes

### ENVASES

- Envases de plástico, bolsas de plástico, botellas de plástico, latas de aluminio, botes de hojalata, tetra-bricks, envases de yoghurt
- NO DEPOSITES: Botellas de vidrio, envases de papel y cartón, corcho de embalajes

### VIDRIO

LOS ENVASES DE VIDRIO SE CONVERTIRAN EN NUEVAS BOTELLAS

- DEPOSITA: Botellas de vidrio, jarras de vidrio, tarros de vidrio
- NO DEPOSITES: Bombillas, fluorescentes, cristales de ventanas, tapas metálicas y corchos, espejos

### ROPA Y CALZADO

CONTENEDORES INSTALADOS EN GELTOKI KALEA Y LEARRETA MARKINA (junto Bolatoki)

DEPOSITA en una bolsa cerrada: Ropa, calzado y restos de telas y tejidos

**ACEITE DOMESTICO.** MAQUINAS INSTALADOS EN GELTOKI KALEA, LEARRETA-MARKINA (junto Bolatoki) y BAJO AUTOPISTA

Recipiente específico de reciclaje. Solo aceite de cocina. No verter aceite caliente

**PARA EL RESTO:** GARBIGUNE - DURANGO (946 817 876)

De lunes a Viernes: 9:30 - 13:30 / 15:30 - 18:30

Sábados y domingos: 10:00 - 14:00



# LABURREAN

## IKASTEKO GELA

\***Zengotibengoa kalean**, Kzgune zaharrear, jubilatuen egoitzaren ondoan, 16 urtetik gorako berriztarrei zuzendutako ikasketa gela atondu du Udalak. Astelehenetik igandera egongo da zabalik, eguerdiko 14:00etatik 20:00etara eta abuztuan itxita egongo da. Ikasketa gela erabiltzeko nahikoa da jubilatuen egoitzan izena ematearekin.

## COMIDA A DOMICILIO

\* **El Ayuntamiento ha puesto en marcha el servicio** de comida a domicilio para personas mayores de 60 años o dependientes. Para acceder al servicio deben cumplir tres requisitos: empadronamiento mínimo seis meses, necesidad contrastada por los Servicios Sociales de base y buenas condiciones de habitabilidad en la vivienda. El servicio consiste en la entrega de una vez a la semana de siete menús de mediodía.

## ONDAREA SAREAN

\* **Berrizko ondare etnografikoa eta linguistikoa** zabaltzeko asmoarekin Udalak 100 berriztar baino gehiagori egindako elkarrizketak sarean eskegi ditu. Elkarrizketa gehienak "Aintzinako Berriz, bizimodua eta ohiturak" liburua egiteko egin ziren. Orain, lekukotzak [www.berriz.org](http://www.berriz.org) udalaren webgunean edota [www.herriondarea.org](http://www.herriondarea.org) atarian ikusi daitezke.

## ENCUENTRO INTERCULTURAL

\* **Se celebrará por sexto año el día 12 de junio.** Por primera vez asistirán al encuentro personas senegalesas que conviven en Berriz. Durante todo el día se organizarán talleres de henna, trenza, percusión... habrá actuaciones de bailes, degustación de platos típicos de cada nacionalidad. Se preparará marmitako para todas las personas asistentes al encuentro. Uno de los objetivos del encuentro es fomentar un acercamiento entre diferentes culturas, a través de la realización de actividades conjuntas, en donde se puedan compartir experiencias interculturales.

## ENERGIA NUKLEARRA

**Ekainaren 5ean, Ingurmen Eguna** ospatzen da mundu osoan. Berrizen, erreka garbitzea eta Urbiara mendi irteera antolatu dira asteburu horretarako. Horrekin batera, energia nuklearrari buruzko berbaldia ere antolatuko da. Roberto Bermejo Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta doktorea gonbidatu dute horretarako. Ekainaren erdialdeira izango da hitzaldia, baina erabat lotu barik dago oraindik eguna.

## 400 KIROLARIREN ZAIN 'ATEAK ZABALTZEKO'

**Berrizburu kiroldegian "Kirolari ateak zabalik" eguna izendatu dute ekainaren 5a.** Bizkaiko beste herri batzuekin batera antolatzen den jardunean, herriko kirol azpiegiturak ezagutzera eman eta saio arinetan doan erabiltzeko aukera izango da. Ekimen horren helburua, herritarrak kirola egitera bultzatzea da.



Ohikoak diren ekimenekin batera (Urbiara mendi irteera, futbola, pilota, ariketa aerobikoak...), skate eta roko-dromoa ere zabalduko dira, karate ikastaro

bat antolatuko da eta Berriz Bizikletari Elkarteak asteko bizikleta irteeran parte hartzeko gonbitea egingo dute. Aurreko urteko datuak kontuan hartuta, 400 bat lagunene parte hartzea itxaroten da. Guztientzat eguneko kamiseta eta otartekoa izaten da opari. Ekitaldiotan parte hartzeko –mendi irteera salbuespen, ez da zertan aurrez izena eman behar.

## Futbola, pilota, bizikleta

Ekainaren 5eko hitzorduaz aparte, herriko kirol taldeen ekimenez bestelako ekintzak ere izango dira ekainean. San Pedro eta Santa Isabel jaietan amaituko den IX. Oizpe pilota txapelketa egiten dabil maiatzaren hasieratik. Ekainaren 10etik 12ra, jai aurrean ohiko den futbito maratona egingo da. Eta ekainaren 12an, Zigor Etxezarragaren omenezko martxa zikloturista egingo da.



**Jaietarako prest.** Ekaina jaien hilabetea da Berrizen: 5ean Andikona auzoan; 12an Urdaigagan; 18an Learreta-Markina ikastetxean; 24ean San Juan eta ekainaren 25etik uztailaren 3ra, San Pedro eta Santa Isabel ospatuko ditugu. Dagoeneko jai batzordeko kideak badabiz jai nagusiak antolatzen. Azken bilerak maiatzaren 30ean eta ekainaren 13an izango dira, Kultur etxean 19:00etan.



## CAMPAMENTO URBANO



La semana que viene, del 23 al 31 de mayo, se abre el plazo para las inscripciones en el campamento urbano que este año se hará del 4 al 22 de julio. La inscripción se puede realizar tanto en el centro escolar como en las dependencias del ayuntamiento. El precio de inscripción sube respecto al año pasado. Cada menor deberá pagar 60 euros, pero se aplicarán diferentes descuentos en aquellos casos en el que participen más de uno o una de la misma unidad familiar. El día 8 de junio, a partir de las 19:00, se hará una reunión con las madres y padres para presentarles el programa del campamento. Como todos los años el campamento estará ubicado en el centro escolar Learreta-Markina y su horario de 9:00 a 13:30. Para los y las alumnas de ESO, se organizarán salidas y actividades específicas desde el Gazteleku.



## EUSLIDERRAK DITUGU BERRIZEN

Gazteen artean euskararen erabilera informala sustatzeko helburuagaz, ikasturtean zehar DBHko gazteek Udalak eta ikastetxeak AEKren aholkularitzarekin diseinatutako tailerretan parte hartu dute. Euren eguneroko harremanetan euskarak zer leku duen aztertze eta euskara gehiago erabiltzeko bitartekoak hausnartu dituzte "euskararen lider" bihurtuta. Hori erakusten duen kamisetak ere eskuratu dituzte.

Euskaliderren egitekoa hurrengo, gurasoekiko hartu-emanetan ere euskararen erabilera aztertzea izango da. Horretarako, ekainean zehar ekimenean parte hartu nahi duten gurasoekin bilera berezia egingo da.

Bestetik, gazteei zuzenduta "Izarren Distira" lehiaketa egingo da aurten bigarren bez. Horretarako, Bizkaiko beste herri batzuetako gazteekin batera, ekainaren 28an eta 29an, barnetegi berezia antolatu da Urduñan. Izena ematea ekainaren 14a arte dago zabalik: [www.izarrendistira.com](http://www.izarrendistira.com)



**Saharauis berriztarras.** Una año más, niños y niñas saharauis pasarán el verano en Berriz, con familias de acogida, gracias al programa "Vacaciones en paz". El Ayuntamiento mantiene el compromiso de costear el viaje y la estancia de 10 niños y niñas. Para más información se puede acudir al área de bienestar social.



**Lip dub Berriz.** Beste herri batzuetan egin duten antzera, herritar batzuek Berriz euskaldun baten aldeko lipdub-a prestatzen dabiz. Dagoeneko Facebooken zabaldu dute kontua eta erabiliko duten kantua ere aukeratuta dago: Betagarriren Arren Erro Zaharra. Hurrengo, herritarrei eta elkarteei parte hartzeko deia zabaltea izango da. Eta grabaketa irailan egiteko asmoa dago. Udalak herritarren artean ekimenaren berri ematen lagunduko du.

# NO A LA LINEA DE ALTA TENSION

El Ayuntamiento de Berriz ha presentado alegaciones contra el anteproyecto de construcción de una línea aérea de transporte de energía eléctrica a 400 Kw doble circuito, Güeñes-Itxaso, que discurre por el municipio.

La propuesta de trazado, prevista en el anteproyecto presentado, afectaría al término municipal de Berriz en una longitud aproximada

de 4,943 Km de suelo clasificado como no urbanizable, en sus categorías de Rural General y, en la mayor parte del trazado, en la de Protección Natural Paisajística. El trazado previsto en el anteproyecto discurre las torres 29 y 30, en paralelo con la Red Eléctrica existente de 400 kw Amorebieta-Itxaso por una zona de gran riqueza forestal, atravesando las cimas del Sarrimendi (Andikoaburu) y Gaztelumendia.



## Resumen de las alegaciones presentadas

- Los indicadores socio-económicos apuntan a una reducción del consumo de energía.
- El trazado en paralelo con la línea existente, crearía una barrera artificial infranqueable para la flora y fauna.
- La proximidad de ambos trazados hace necesaria la unificación de las dos líneas, en un único trazado.
- El trazado debe respetar las características naturales del terreno por el que discurre, evitando alterar las cimas de los montes Asteia, Sarriamendi (Andikoaburu) y Gaztelumendia.
- Necesidad de implantar una serie de medidas correctoras que garanticen la preservación del medio natural.

### Wifi guztiontzat.

Udalak internetera konexioa wifi bidez zabaldu gura du herri osoan, auzoak barne. Horretarako lehenengo pausuak eman ditu. Hurrengo horretarako azpiegitura jartzea izango da eta aurrerago zerbitzuaren mantenurako udal tasa berria ezartzea. Horrela, berriztar guztiek izango dute internetarako doako konexioa.



**Musika etxea, urte amaierarako.** Iturriza kaleko 42. zenbakian laster hasiko dituzte lanak. Musika etxea atonduko dute bertan. Herriko musikari eta taldeek euren entsegetarako eta sormen lanetarako lekua izango dute. Guztira tamainu diferenteetako lau gela insonorizatuko dira eta kanpoaldean musika tresna eta bestelakoetarako txarteldegia ere ipiniko dira. Proiektuak 322.000 euroko aurrekontua du. Urtea amaitu orduko prest izango da.

# LABURREAN



## BERRIZ DESDE EL APARCAMIENTO

Así se titula el **trabajo ganador** del concurso de pintura al aire libre que ha cumplido su 12ª edición el 7 de mayo. Su autor es Alvaro Gil Soldevilla y es de Corella. En total este año han participado 25 personas.

## AÑEKETAN EGITEKO EZ DA ADINIK



**Bigarrenez** antolatu da aurten "añeketan" ekimena, martxoak 8 Emakumeen Egunari lotutako ekitaldietan. Berrizburutik Olakuetara peto naranjak jantzita adin guztietako emakumeek parte hartu zuten.



## ONGIETORRI ONITZA, AGUR NAIARA

**Udaleko berdintasun sailean** azken urteetan lanean ibilitako Naiara Garate Manzisidor martxoan agurtu eta Onintza Larrinaga Gandiagari ongietorria eman diote. Ibilbide berrietan zorte ona opa diegu ondarrutar bieri.

## CAMINO DE SANTIAGO, NUEVA ETAPA



**Organizado** por el polideportivo Berrizburu la última semana de mayo se harán dos nuevas etapas del Camino de Santiago entre Santo Domingo de la Calzada y Agés. El viaje, alojamiento y desayuno son 63 euros. Último día para apuntarse el 20 de mayo.

# BERRIZKO AGENDA

## MAIATZAK 20

Erakusketa: Gure Izarrak elkarteko tailerretako eskulanak ekainaren 6ra bitartean. Kultur etxeko atarian.

## MAIATZAK 21

Musika: Pello Ramirez. Kultur etxean, 20:00etan.



## MAIATZAK 23

Izena-ematea: udaleku irekietan inskripzioa egiteko epea zabalik maiatzaren 31ra bitartean. Ikastetxean zein udaletxean.

## MAIATZAK 28-29

Irteera: Donejakue Bidearen etapa berri bi. Berrizburu kiroldegian informazioa.

## MAIATZAK 30

Batzarra: jai batzordea. Kultur etxean, 19:00etan.

## EKAINAK 3

Musika: XXII. Musika Jaialdia Berrizko musika eskolak antolatuta. Kultur etxean, 20:00etan.

## EKAINAK 4

Ingurumena: Erreka garbiketa (ordua zehazteko)



## EKAINAK 5

Jardunaldia: Kirolari ateak zabalik. Goizean zehar kirol ezberdinak probatzeko aukera.

Irteera: Urbiara. Autobusa goizeko 8:30ean. Izena ematea kiroldegian.

Jaia: Andikoako jaiak.



## EKAINAK 8

Batzarra: Udaleku irekietako gaztetxoek gurasoentzat. Kultur etxean, 19:00etan.

## EKAINAK 10

Musika: Uannah (Euskal Balkan Folk). Udaletxeko lorategian, 21:00etan. (Euria egiten badu, Kultur etxean)



Erakusketa: Zeramika tailerreko lanak ekainaren 27ra arte. Kultur etxeko atarian.

Txapelketa: Ekainaren 10etik 12ra Futbito Maratoia jokatu da Berrizburu kiroldegian.

## EKAINAK 12

Kultur arteko jaiak. Tailerrak, dantzak, dastatzeak... goiz eta arratsaldean. Learreta-Markina ikastetxean.

Jaia: Urdaigako jaiak

## EKAINAK 13

Batzarra: jai batzordea. Kultur etxean, 19:00etan.

## EKAINAK 18

Jaia: Learreta-Markina ikastetxeko jaiak.

## EKAINAK 23


San Juan sua, Berrizburun.

## EKAINAK 24

Jaia: San Juan jaiak

## UZTAILAK 4

Udaleku irekiak. Learreta-Markina ikastetxean izango dira ekintza nagusiak uztailarene 22ra arte.



## UZTAILAK 10

Jaia: Esklerosi anizkotzaren aldeko ekimena igerilekuan, goizez.



## BERRIZKO TELEFONOAK

UDALETXEA .....94 682 40 36  
OSASUN ETXEA .....94 623 61 00  
KIROLDEGIA .....94 682 62 44  
KULTUR ETXEA .....94 682 78 60

ERRETIRATUEN ETXEA.....94 682 48 66  
LEARRETA-MARKINA .....94 682 43 44  
DBH Institutua .....94 682 49 62  
HAURRESKOLA.....94 682 63 39